




Vath Laitós lau



Testua
Joseba Calzada

PIRINIOETAKO mendirik garaiena izan ez arren, 3146 metroko altuerarekin mendilerroko tontorrik garrantzitsuenetakoa dugu Vath Laitós. Gailurrera heltzeko ez dago bide errazik, alde guztietatik baitu bere zailtasun puntua.

Joseba Calzada Bilbon jaio arren (1979), gaur egun Etxebarrin bizi da. Txikitatik familiaren Igertu baserrian (Bermeo) garatzen joan da naturarekiko bere zailtasuna. Betidanik kirola gustatu izan zaio eta azken urteetan mendizaletasunari gogor ekin dio (izotz eskalada, ertzak, mendiko eskia...). Alpetan egon da eta ahal duenean hain maite dituen Pirinioetara ihes egiten du. Egindako txangoak, bere blogean konpartitzen ditu: <http://igertu.blogspot.com>



Igoerak

Mendebaldetik (W). Diagonal Handia (F+)

<http://igertu.blogspot.com.es/2013/08/20130811-balaitous-3144m-por-la-gran.html>

Igotzeko sasoirik aproposena uda bukaera izaten da. Ibilbide honetako azkenengo tarteak elur edota izotzarekin oso arriskutsua da.

Abiapuntua La Sarra-ko urtegia dago kokatuta (1440 m, 00:00 h), GR-11 ibilbidea jarraitu behar dugu Aguas Limpas-eko arroila jarraituz. Oinez ordubeteko bidea ibili ondoren, Arriel lakuetara doan bidegurutzera helduko gara eta, bide nagusia utzita, handik ezkerrera doan bide arrastoa jarraitu behar dugu. Aldapa malkartsuak Arriel lakuetara (2175 m, 02:10 h) eramango gaituen bitartean, geure

haizeetara

■ Mendebaldeko Pirinioak Deabruaren ertzaren gainetik agertzen dira

ARGAZKIA: JOSEBA CALZADA.
TOKIA: USSEL ORRATZA

bizkarraldean agertzen diren tontorren ikuspegiak txundituta utziko gaitu: Collarada, Punta Escarra, Foratata... dira bertan nagusi.

Lakuak Frondiella-ko gailurraren azpian daude, baina gu iparrerantz segituko dugu, Pallas aldera. Arriel-go goreneko lakuan, eskuinerantz biratuko dugu harri multzoak jarraituz. Bide arrastoek Ibón Cheláu izeneko laku izoztu batera eramango gaituzte. Hemendik gure tontorrera heltzeko falta dena begi bistan dugu.

Ibón Cheláu (2410 m, 03:10 h) ezkerraldean igaro eta gero, aldapa harritsuak toki errazenetik gaintzen saiatuko gara. Horretarako harri multzoak jarraitzea da onena. Tarte honetan agian elurra aurki dezakegu, nahiz eta uda bukatzean egon. Laster ibilbideko puntu bereizgarrietariko batera helduko gara: Abri Michaud izeneko aterpetxo. Haitzulo bat aprobetxatuz, aterpe libre bat egin zuten bere garaian, izan ere, 1920. urteko inskripzio bat du sarreran.

Paretan gora eskuinetik ezkerrera doan bide diagonal da eta hortik datorkio izena

EL Vath Laitós es uno de los reyes del Pirineo, cabeza del macizo más occidental que alcanza la mágica cota de los tresmil metros. Sin embargo, dista mucho de alcanzar la cantidad de visitas que llegan a otras grandes cimas pirenaicas como Monte Perdido, Aneto o la Pica d'Estats: ninguna de las rutas que llevan a la cima de Vath Laitós resulta sencilla. Joseba Calzada nos describe en este artículo las vías clásicas propias de sus cuatro vertientes, justificando así el oportuno título Vath Laitós 'a los cuatro vientos'. Desde la menos complicada ruta de la Gran Diagonal (F+), hasta la afilada arista de Costerillo (D), las rutas de la brecha Latour (PD+) y del glaciar de las Neus (AD+) ofrecen al montañero experto la posibilidad de gozar, según la época y la preparación técnica de cada cual, de los tres medios de progresión de la montaña clásica: el hielo, la roca y la nieve.

Neuvielha, Pic Long, Tromosa, Posets, Vinhamala, Gran Faixa, Taillon, Garmo Negro...

Hegoaldetik (S). Latour Arrakalatik (PD+)

<http://igertu.blogspot.com.es/2007/06/balaitous-3144m-geure-gailurra.html>

Latour-ekoa gehien erabiltzen den bidea da. Urteko edozein garaitan igo gintezke bide honetatik, hori bai, kontuan izan udazken bukaeran lehenengo elurteekin arrakalako eskalada oso zail jartzen dela.

Abiapuntua La Sarra-ko urtegi dago kokatuta (1440 m, 00:00 h). GR-11 ibilbidea jarraitu behar dugu Aguas Limpias-eko arroilan gora. Oinez ordubete egin ondoren Arriel lakuetara doan bide arrastoa ezkerrean utzi eta zuzen ekingo diogu bide nagusitik, Respomuso aterpera (2170 m, 02:15 h) heldu arte. Eraikina toki eder batean dago kokatuta, urtegi handi bat behean eta atzean mendi erakargarri batzuk nabaritzen direlarik, besteak beste, Gran Faixa, Campoplano, Llana Cantal, Piedrafita, Tebarrari... Aterpean lo eginda, igoera bitan banatzeko aukera dugu.

Aterpearen atzeko aldetik abiatzen da tontorrera doan bidea, Respomuso trokan gora. Ez dago bide markatu bat, baina norabidea seinatuzten duten harri multzo ugari daude. Ibilitzeko toki deseroso eta malkartsua da Vuelta Barrada-ra doana. Hala ere, bertara heltzean dugun ikuspegiak bihotza hunkituko digu, Costerillo eta Deabruaren ertzak nagusi direlarik.

Ezkerraldean Latour arrakala agertu zaigu, igoera honetako tarterik zailena. Elurrik gabe badago, III. mailako eskalada zatia da, eta elurtuta egonez gero kranpoiak eta pioleta erabili beharko ditugu. Ez ahaztu honelako tokietan kaskoa beti lagungarria dela, harriak jausteko arrisku handia dago eta. Lehenengo zatia pitzadura barutik doa, gero eskumaldean dagoen trepada gaintuz (II), dorrearen puntu garaiean kokatuko gara. Tarte hau jaistean rapelatzeko aukera dugu, parabolt-ekin ekipaturik dago eta (20 metroko bost rapel).

Dorretik gailurrera doan zatia oinez egingo dugu, inguru ikusgarri honetan: gure ezkerrean Mieidia d'Aussau, Arriel,

Abri Michaud (2700 m, 04:05 h) aterpean hasten da Diagonal Handia izendatutako tarte. Paretan gora eskuinetik ezkerrean doan bide diagonal da eta hortik datorkio izena. Bi zati bereiz daitezke Diagonalean. Lehenengoan eskuman horma daukagula egingo dugu gora, harri handien artean, landa gune zabal batera irten arte. Landa gune honetan hasten da bigarren zatia, baina adi egon behar gara eta, gorantz jo beharrean, zeharbide horizontal labur bat egin behar dugu, tarte estu batzuk pasatuz. Gero paretara itsatsita doan bidea jarraitu behar dugu. Ezkerrean tontor ikusgarri batzuk agertzen dira: Arriel, Lo Lurrient, Palas, Mieidia d'Aussau...

Brecha des Isards-era heldu baino lehen utziko dugu marra diagonal hau, eskumara doan tximinia baten bila. Hemen hasten dira tontorrera eramango gaituzten eskalada igarobide errazak (gehienez ere II. gradua). Goiko tripodera ikusgai dugu jadanik: gure saria oso hurbil dago, 50 bat metro geratzen zaigu punturik altuenera heltzeko, Vath Laitós-eko tontorrera hain zuzen ere.

Vath Laitós (3146 m, 05:15 h), mendilerroaren mendebaldeko gailurrik garrantzitsuenetariko da, eta bertara heltzea beti da berezia. Gaur Igor eta Iñigorekin nator. Eurentzat lehenengo aldia da tontor honetan eta oso pozik gaude. Hemendik dagoen ikuspegi zabala da:

Palas, Lo Lurrient...; bizkarraldean Frondiellas-eko tontorrek eta Partacúa mendilerroa.

Vath Laitós (3146 m, 05:00 h), gaur lehenengo aldía da tontor hau bisitatu dudala. Agus, Igor eta Bearekin partekatu ditut egun honetako une izugarriak. Hemendik dagoen ikuspegia zabala da: Neuvielha, Pic Long, Tromosa, Posets, Vinhamala, Gran Faixa, Tallón, Garmo Negro... Hala ere, oraindik ezin gara erlaxatu, beheko bidea burutu behar baitugu eta arratsalderako ekaitza dagoelako iragarritu.

Ekialdetik (E). Costerillo ertza (D)

<http://igertu.blogspot.com.es/2013/09/20130904-cresta-costerillou.html>

Costerillo ertza Vath Laitós-era heltzeko modurik zailenetakoa da. Bidean Frantzia eta Espainia banatzen dituen granitoko bizkarrezurrean orekari eutsi eta, ondoren, Pirinioetako hirumilako konplexuenetako honi aurre egin beharko diogu, Costerillo dorrera doazen IV. graduko eskalada zatiak gaindituz. Beraz, sokakide on batekin etortzea komeni da.

Aurreko beste bi aukeren moduan oraingo honetan ere La Sarra-ko urtegitik (1440 m, 00:00 h) abiatuko gara. Eta haietan bezala, GR-11 ibilbidea jarraitu behar dugu oraingoan ere, Aguas Limpias-eko arroilan gora bide nagusitik Respomuso aterpera (2170 m, 02:10 h) heldu arte. Egun luzea eta igoera konplexua da gaurkoa eta komeni da aterpean lo eginda igoera bitan banatzea.

Aterpearen atzeko aldetik abiatuz, Respomusoko trokan gora harri multzoak segituko ditugu Vuelta Barrada-ra sartzeko. Aurrez aurre Vath Laitós-eko hego paretara daukagu, haren ezker aldean Latour-eko arrakala eta eskuinaldean Costerillo dorrea eta Ussel orratza. Gu azkenengo honen aldamenen dagoen lepora heldu behar gara. Lehenbizi kranpoiekin zeharkatuko ditugu Vuelta Barrada-n geratzen diren glaziar arrastoak eta, paretara heltzean, arnesa, kaskoa, soka eta behar diren tramankulu guztiak aterata, eskalada hasiko dugu.

Lehenengo, paretan dagoen harri beta marroi bat jarraituko dugu norabide horizontalean, arrakalaren azpian jarri arte. Bertatik gorantz, eskalada zati errazak gaindituz (II / II+ gradukoak) helduko gara Ussel orratzaren tontorrera (3022 m, 05:10 h).

Hirumilako honetatik mendebaldeko Pirinioen ikuspegi zabala izango dugu: Montaigu, Mieidia de Bigorra, Neuvielha, Pic Long, Aneto, Posets, Tromosa, Vinhamala, Tallón, Gran Faixa... baina geure begirada aurrean dugun ertz zorrotzera joaten zaigu, tarte ikusgarria da eta. Berehala lotzen gara sokan Martin eta biok eta tarte zorrotz honi aurre egiteko prest gaude. Ertzak toki gehienetan granitoko oso harri ona du, eta ia osorik egingo dugu ertzaren gainetik, pixka bat Neus-eko amildegiaren gainetik. Ez du oso igarobide zailik (II. gradukoak gehienak), baina ez du akatsik onartzen, hots, sokakideak oso koordinatuta egon behar dira.

Ia konturatu gabe heldu gara Arc Boutant-era. Hau Espainiako isurialdetik ekidingo dugu rapel baten bitartez (III. graduko destrepea) eta segidan agertzen den tximinia eskalatu behar dugu (III+. gradua). Honek Arc Boutant eta Costerillo dorrearen artean dagoen pitzadurara aterako gaitu. Bertan dauden iltze biak erabiliko ditugu igoeraren zati teknikoena aseguratzeko.

Cadier igobidea jarraituz, IV. graduko igarobide desplomatu bat gainditu behar da Costerillo dorrera heltzeko

Dorrea Cadier igobidetik erasoko dugu. Elkargunetik irten eta jarraian IV. graduko igarobide desplomatu bat gainditu ondoren, III. mailako eskalada geratzen zaigu Costerillo dorrera (3049 m, 07:40 h) heltzeko. Oso gailur zorrotza da eta beste



■ Bistadun eserlekua, atzean Ussel orratza

aldetik hegan utziko gaituen 20 metroko rapel baten bitartez jaitsiko gara mendebaldean dagoen hurrengo arrakalara. Baina ez da komeni lar erlaxatzea, oraindik zerurantz doan eskailera modukoa geratzen baitzaigu (III. mailako ertza), Vath Laitós aurreko malda zabaletara eramango gaituena.

Soilik paseo eroso bat geratzen zaigu gailurrean dagoen tripodea ukitzeko. Vath Laitós (3146 m, 09:20 h) jardunaldi magiko hau betetzen laguntzen ari zaidan sokakidea Martin da. Lasaitasuna eta gozamena dira nagusi gure artean, ibilbideak merezi du eta. Ikuspegia zabala da: Neuvielha, Pic Long, Tromosa, Posets, Vinhamala, Gran Faixa, Tallón, Garmo Negro... Ordea, ezin gara lokartu oraindik jaitsiera falta zaigu eta. Latour edo Diagonaletik jaits gintezke eta guk gaur Diagonaletik egingo dugu. 13 orduko aktibitatea burutu ondoren helduko gara La Sarra-ra.

Iparraldetik (N). Neus-eko tximinia (AD+)

<http://igertu.blogspot.com.es/2012/04/20120330-balaitous-3144m-por-la.html>

Azun ibarrean gora goaz, Argelès de Gasòst atzean utzita. Arrens-Marsós-etik

■ Mendizaleen joan etorria

ARGAZKIA: JOSEBA CALZADA
TOKIA: VATH LAITÓS



ARGAZKIA: MARTIN GARMENDIA
TOKIA: COSTERILLO ERTZA

irten eta abiapuntua normalean Pla d'Asta-n (1480 m) izaten da, bertan 40 autotarako aparkalekua dago. Baina elur-jausi arriskua dagoenean, errepidea Tec-eko presara heldu baino lehen dagoen hesiaz itxita egoten da. Txango hau burutzeko garairik egokiena udaberria da, langa zabaltzen dutenean. Eta proposena mendi eskiekin egitea da.

Gaur Tec-eko presara heldu baino lehen dagoen langa itxita dago (1080 m, 00:00 h). Beraz 6 km extra egin behar ditugu asfaltotik. Eskiak, botak, soka, kranpoiak, pioleta... pisu itzela gure bizkar gixajoarentzat. Pla d'Asta-n (1480 m, 01:25 h) oinetakoak kendu eta eskiko botak jantzi ondoren ibilbidearekin jarraitzen dugu. Suyen lakua pasatu eta gero, Ledormeur aterpera doan bidegurutzera helduko gara. Eskuineko bidea Larribet aterpera doa, baina gu ezkererantz goaz.

Pla de la Bassa-n (1740 m, 02:50 h) eskiak erabiltzen hasteko aukera dugu. Ibarra alde batera utzi ondoren, taulen gainean mendebalderantz goaz Neus-eko glaziarraren bila. Aldapa ederra dago eta laster heltzen gara Ledormeur aterpearen aldamenera (1917 m).

La Pacca lakuetan (2100 m) aldapa leundu egiten da eta gure aztarnek hegoalderanzko norabidea hartzen dute Costerillo ertza

azpiko hormekin topo egin arte. Pareta ezkerrean dugularik glaziarraren gora goaz. Bapatean aurrez aurre Neus-eko tximinia agertzen zaigu, baina dirudiena baino urrunago dago oraindik. Aldapak gora egiten du eta sigi-sagaz baliatzen gara bidea xamurrago egiteko.

Normalean 150 metro eta 55°/60°-ko pendiza erraza da, baina elur gabeziak zailago jar dezake igobidea

Tximiniaren azpian eskiak utzi, arnesa jarri, soka atera eta kranpoiak soinean ditudala, izotz eskaladari aurre egiteko prest nago neure bi pioletekin. Normalean ez da igoera zaila, 150 metroko desnibela gainditzen du 55°/60°-ko pendizarekin, baina gaur elur gabeziak normalean dena baino zailago jarri du igobidea. Lehen zatian 70°-ko izotz zati mehe baten gainetik doan eskaladak gure teknika neurtuko du. Gero pendiza 55°/60°-tan finkatzen da eta berehala dugu bistan burdinezko tripodea.

Iparraldetik Vath Laitós-era heltzeak (3146 m, 08:50 h) 2200 metroko desnibela gainditzea suposatzen digu, gainera neguko material pisutsua bizkarrean daramagula. Eta ezin da ahaztu azkenengo zati teknikoari aurre egin behar zaiola punturik altuenera heltzeko. Honi guztiari erabateko bakardadea gehitzen badiogu, gaur egun magiko horietako bat da: tontorrera heltzea ia ezinezkoa zirudien goizaldean Tec-eko presatik abiatu naizenean, baina lortu egin dut!!! Aldamenera gailurrek ongi etorria ematen didate: Neuvielha, Pic Long, Tromosa, Posets, Vinhamala, Gran Faixa, Tallón, Garmo Negro...

Beherako bidea toki beretik egiten dugu, tximinia jaisteko rapel batzuk eginez (25 metrokoak) eta gero eskien gainean beherantz goaz ziztu bizian. Berrito ere pisu guztia lepo gainean jarri beharko

dugu. 14 ordu eta erdi burutu ondoren autoan gaude berriz.

Beste igoera batzuk

Igoera hauetaz gain, badaude beste aukera batzuk gailur honetara heltzeko: ipar-mendebaldeko ertza (D), Vira Beraldi (PD+), Auguerot Ollivier (D-), Packe-Russell ertza (AD+)...

Aterpeak

Espainiatik **Respomuso** (2170 m) aterpea dago. 105 mendizalarentzako tokia du eta urte osoan zabalik egoten da (974 337556). Vath Laitós-era igotzeko erabil ditzakegun bideak: Diagonal Handia, Latour Arrakala eta Costerillo ertza dira. Inguruko mendietara igotzeko erabil dezakegu aterpe hau: Infiernos, Gran Faixa, Frondiella, Tebarrai, Llena Cantal, Cambales, Cristals...

<http://www.fam.es/web/listarefug/respomoso>

Frantziatik **Larribet** (2060 m) aterpea proposa da (05 6242 1367) Col Noir gaintitu, ondoren Diagonal Handitik igotzeko, edo ipar-mendebaldeko ertza eta Vira Beraldi eskalatzeko. Ostataua zainduta dagoenean 60 pertsonarentzako tokia dago, eta neguan 32rentzako tarte libre bat uzten dute.

<http://refugedelarribet.ffcam.fr/>

Neus glaziarraren bukaeran badago aterpe libre bat, **Ledormeur** (1917 m) edo **Vath Laitós** izenez ezagutzen dena, 12 mendizalarentzako tokia du.

<http://www.pyrenees-refuges.com/fr/affiche.php?numenr=200>

Bukatzeko, Diagonal Handiaren azpian **Abri Michaud** (2700 m) dugu, haitzulo txiki eta heze bat da, baina euritik nahiz haizeetatik babesteko aukera ematen du.

Eskerrak

Txango hauetan lagundu didaten guztiei: Igor G., Agus, Bea, Iñigo, Igor C. eta Martin. Nire esker ona mendi honen inguruan elkarrekin pasatu ditugun une bereziengatik. Fidel eta Iñigori testuan zuzenketa batzuk egiteagatik. Eta bereziki Bea nire maiteari, une oro nire aldamenean egoteagatik. □



■ *Bea eta biok tontorrean*

ARGAZKIA: IGOR GOIRIZELAIA. TOKIA: VATH LAITÓS